

## Josu Naberan

### Euskal sena edo kultura-nortasun kolektiboa. 19.05.15

#### a) Zertan datza euskal sena?

---

Ez dut ulertzen euskal *sena* edo nortasuna inoiz aldatzen ez den esentzia abstraktu gisa. Historian zehar alda daiteke eta aldatzen da, ikusiko dugunez. Bestalde, alderdi negatiboak ere aurki daitezke, jakina, baina hemen euskal jendarte justuago bat eraikitzeko baliagarri izan daitekeena hautatuko dugu. Gaur egungo etapa kapitalista eta patriarkalari aurre egin diezaiokeen euskal sena (Ortiz-Osesek “euskal inkontziente kolektiboa” deritzo).

Non aurkitzen da berau? Zeintzuk dira nortasun horren sustraiak?

Lehenik eta behin, indoeuoparren aurreko *Europa Indigena* delakoa. Geroago, horren aztarna edo arrasto diren *Euskal Mitoa*, *Zuzenbide Piriniarra* eta *Forua*, euskal komunalismoa, emakumeak euskal gizartean izan duen protagonismoa, lurraren eta naturarekiko lotura eta atxikimendu materiala (euskal *materialismoa*), euskera eta folklorea, inposatutako sistemaren kontrako hainbat heresia eta intsumisio...

Hori dena aurkituko dugu Euskal Herriaren historian zehar.

#### b) Europa indigena

---

Euskal senaren lehen oinarri ezagunena, arkeologo nahiz antropologoek oso ondo ikertua eta dokumentatua, Europa Zaharra edo Indigenarekin euskaldunok partekatzen dugun garai pre-indoeuoparra da. Zibilizazio hori hainbat milurtetan zehar garatu zen Europa neolitikoa (duela 9000 urtetik indoeuoparrak sartu arte, gurera 3500 inguruan).

Gai honi buruz garrantzi berezia du, besteak beste, Marija Gimbutas arkeologoak eta bere zientzialari taldeak egindako ekarpen erabakigarria ezagutzea (ikus Interneten edota *Sugearen Iraultza* liburuan laburtu nuena (13-21 orr.))

Gimbutas emakume lituaniar-estatubatuarrak Ekialdeko Europan (Grezia, Errumania, Balkanak, Polonia, Ukraina...) garai hartako bizimodua bere osotasunean azalera zuen ehunka aztarnategi arakatu zituen, botaniko, zoologo, klimatologo, antropologo, paleontologo eta, arkeologoz osaturiko taldeko lanean. Lautada zelaietan eta ibar emankorretan bizi ziren nekazari aurreratuak ziren, zerealak eta lekariak ekoizten eta gaur egun Balkanetan hezten den azienda guztia bezatzen, zaldia izan ezik. Horrez gain, buztingintza, zeramika eta kobrea lantzen zuten, baita merkataritza ibaietan zehar belaontzietan VI. milurtetik geroztik.

Era berean, beste zientzialari talde batek, James Mellaart arkeologoaren gidaritzapean, Anatolia mendebaldeko montor zapal batean, ÇatalHoyük hiria aurkitu zuen: etxez, zeramikaz, eskulturaz eta irudiz beteriko hamahiru hektarea, non 10.000 biztanle inguru bizi ahal ziren. Duela 7000 urteko hiri hori aurkitzeak Troia aurkitzearen pareko garrantzia omen du.

Hala Gimbutasen aztarnategietako nola ÇatalHoyükeko indusketen arabera, ez da ageri gerra-kalte eta harresi aipagarrik, ez urrundik ere geroko indoeuoparren garaian bezalako harresi sendo edo gotorlekurik, ez eta “gerlari heroï”, “gudu gogoangarri”, jainko tximistadun, arma hilgarririk edo gerra-motiborik haien arte-sinbolismoan.

Zibilizazio indigena haren ezaugarri nagusia zera da: natura oro har, **bizitza-iturri den emakume gisa imajinatu zutela**, Lurra eta Kosmosa ama eta emakume gisa irudikatuta aurkitu direla garai hartako milaka irudi eta eskulturatan.

Bestalde, generoari dagokionez, ez da ageri sexu bataren bestearekiko nagusitasunik, ez lanbanaketan, ez ehorzketetan... Ez da ageri ezelako alderik gizonezko-emakumezkoen hilobietako ekipamenduaren aberastasunean, ezta bestelako hierarki mailarik adieraz lezakeen desberdintasunik ere. Are gehiago, etxeko aldare eta tenpluetako irudietan ageri denez, emakumeak eginkizun nagusia zuen erritoen prestakuntza eta apailamenduan. Eta azkenik, Jainkosa deritzona ageri da mundu oso haren sinbolo nagusi eta orohartzaile hainbat horma-iruditan, milaka eskultura txiki nahiz handietan, errito-ontzien dekorazioan... (**“Jainkosa” hitzak ez du esan nahi naturaz gaindiko izakia, baizik eta, garai hartako kontzeptualizazioaren arabera, unibertsoa osatzen duten indarrak emakume gisa irudikatuta**). Ba hantxe ageri da bera, birsorkuntzako indarra erakustera ematen duten eme eta ama ikur apropos nabarmenduekin, paleolitoko “venus” delakoak bezala; hantxe, animalia ezberdinetan haragiturik/mozorroturik: behin suge edota sai, ahari, aketz, orein, zezen, apo, kirikiño, hartz... ezaugarriekin. Betiere Anderearen osagai maskulinoa adierazten duten animaliak; baita Lurraren etengabeko aldaketa adierazten duten ilargia, landareak, ur goiko eta behekoen irudi geometrikoak (oinarrizko ikur-sistema edo idazkera figuratiboa baitzuten: sigi-saga lerroak, espiralak, lauburuak, labirintoak, lerro bikoitz eta hirukoitzak,geziak, sareak...).

Beraz, neolitoko aurre-indoeuropar haiek nekazaritza-iraultza egin zuten, baina gainera, eta honek berebiziko garrantzia du, gizarte parekide ez-patriarkalari eutsi ziotela ondorioztatzeko zantzu guztiak ageri dira; hala zantzu materialak (adib., apaiz gizonezkoak nahiz emakumezkoak aurkitzea) edo eta sinbolikoak (“jainkosa” anderearen protagonismoa). Bestelakoa defendatzen dutenek – hots, ezin dela ondorioztatu gizarte parekiderik izan denik-goian azaldutako datuen kontrako frogak aurkeztu beharko dituzte.

### **c) Zibilizazio zabala**

---

Ekialdeko European azaleratu duten “Antzinako Europa” hori ez da mugatzen eremu horretara, baizik eta inbasio indoeuroparren aurretiko Mendebaldeko Europa ere barne hartzen du. Lotura estua dauka alde honetan 2700 urte iraun zuen megalitoen kulturarekin, Irlandatik Italiara eta Eskandinaviatik Portugalera, Euskal Herria bete-betean hartuz. Izan ere, lehenbizi Eki European azaleratu zena, orain Frantzia (Loira, Oise, Lot, Rodano bokalean) eta beste leku batzuetan ageri da, eskultura batzuk estiloan ere Eki Europakoan antzekoak direlarik (Henri Delporte: *L’image de la femmedans l’artprehistorique*).

Beraz, orain arte zibilizazio hori zenbait leku isolatutan (Kreta, Troia) gertatu zela uste izan den arren, Europa osoan zehar hedatuta zegoen; harreman oso estuak zeuden herri ezberdinen artean, mundu sinboliko bera partekatzen baitzuten. Eta Europa txikiaren haraindi begiratzu gero, Jainkosaren kultura hura nonahi ageri da: Nammu jainkosa gorena Sumerian (ura sortzen duena eta Ur hirian gurtzen zutena), Ua-Zit eta Isis Egipton, Quetzalcoath Mexikon, Danu eta Kali Indian, Kuan Yin Txinan, Stara Baba Siberian, etab.

Euskal Herriari dagokionez, hona hemen Gimbutasekberak dioena: “Euskera Mendebaldeko European antzinako hizkuntzen erlikia bat da, prerromanikoa ezezik preindoeuroparra. Azken 3000 urteetako kultur inbasio eta eraginei eutsi ahal izan dien hizkuntza autoktono bakarra (...) Jainkosaren erlijioak, ilargi egutegiaren erabilpenak, amaren ildoko ahaidetasunak eta emakumeek lurlantza beren esku hartzea XX. mende hasieraraino iraun zuten hemen (...)”

Euskal lege-sistema autoktonoan ez zitzaion ematen gizonezkoari emakumearekiko lehentasunik.” (Marija Gimbutas, *Civilization of the Goddess*, 1993.

Azken hiruzpalau milurtetan beste haize batzuek jo duten arren – patriarkatua, etengabeko gerra eta arpilaketa-, aurretiko hainbat milurteetako bizipenak ezin erraz ezabatu kultura indoeuroparren eragina berandu edo ahulago iritsi zen lekuetan: Kreta, Sardinia, Lituania, Irlanda, Eskozia... eta Euskal Herrian. Hemen eragin horrek luze iraun izan du, batik bat XVI. mendera arte, Nafarroaren konkistara arte, eta zenbait arrasto ia gaur egun arte.

#### **d) Anderearen zibilizazioa**

---

Arrasto horietariko bat Mariren (Dama, Saindiaedo Anderearen) mitoa da.

Gure Andere edo Señoriek “jainkosa” pre-indoeuroparra gogarazten digun izaera du, nahiz eta **Mariri ez zaion deitzen inoiz “jainkosa”**. Lehenik eta behin, emakume gisa aurkezten zaigu, osagai maskulinoak ere barne hartzen dituela (Sugaar, aharia, akerra, zaldia...). Hauen ernalkuntza indarraz baliatzen da naturaren bizi-adurra sortarazi eta berriztatzeko etengabe. Saia eta erroia ditu mezulari, eta Arbola gisa ere ikusi izan da. Hau da, ar-eme printzipioen batasuna adierazten du, baita natura gobernatzen ere, neolitoko *Basabereen Dama* bezalaxe. Gainera, Kosmos osoa gobernatzen du, zeren kobetan bizi arren, Ortzia ere zeharkatzen du argi eta suz, kometak, ilargiak eta eguzkiak bezala.

Neolitoaren ikertzaileek baieztapen garrantzitsu hau egin dute: jainkosa neolitikoaren irudia nekazaritza garaian nahiz nekazaritza aurrekoan metaturiko ezaugarriez osatuta dagoela. Izan ere, hala jainkosa neolitikoa nola gura Andereak, emakumea irudikatzen bi tradizio handietatik edaten dute.

Tradizio bata da Amandrearen irudikapena, paleolitoko “venus” delako estatuatxoaren ildokoa (duela 25000), horrelako milaka aurkitu delarik Akitaniatik Siberiaraino. Estatuatxo horiek amatasuna edota ugalkortasuna adieraziko lukete. **Amandre** bai deitzen diogulallargiari eta Eguzki Amandrea, baina ez zaio egokitzen Mari Andereari; Mariren irudia ez da ama onbera eta samurrarena. “Mari Kobako” ez da urrunetik ere ama tipikoa; aldiz, “Mater Terribilis” dirudi gehienbat, harpeetako zein lur barneko jainkotasun guztiak bezala; edota Hekate/Artemisa, bizitzaren aurkia eta alderantzia (edozein modutan ere, ez du eskatzen inoiz giza- edo animalia-sakrifiziorik; gehienez ere, harri-koskorak botatzen zaizkio leizera, kalterik azalera ez dadin).

Bigarren tradizioa Madaleine aldiko pinturen ildokoa da (duela 15000): animaliekin nahasturiko **Anderea**, Izturitze kobako bisontea eta anderearen pintura, adibidez. Hauxe da Mariri nahiz neolitoko “Basabereen Damari” dagokien irudi tipikoa. Horrez gain, Mariren bigarren ezaugarria, onaren zein gaitzaren sortzailea izatea da, “Ilargi Jainkosa” pre-indoeuroparraren antzera, bere aurpegi positibo nahiz negatiboarekin. Marik berdin egin dezake on zein kalte, artaldea babestu nahiz ekaitza eragin.

Beraz, Anderea, naturaren irudikapena besterik ez denez, jatorrizko euskal pentsaeran ez da ageri Naturaren irudi bukolikorik. Naturarengandik onena nahiz txarrena espero daiteke. Egiaz, pentsaera horrek indar handiagoa hartuko duelakoan nago, Natura gero eta izugarriago bihurtzeko bidean baitoa/baitaramagu.

Bestalde, gure Anderea ez da jainko maskulinoa erakarri behar duen jainkosa tipikoa, zeren, eme-printzipioa ez ezik, ar-printzipioa ere bere baitan duelako, zenbait irudi androgino piriniarrek erakusten duenez. Marija Gimbutasek, jainkosa neolitikoaz zera dio: “Hasieran androginoa zen, falo formako lepo luzearekin; bisexualtasun jainkotiar horrek haren botere

*absolutua* nabarmentzen du. Bere tasun maskulinoen bereizketa duela VI milurteko uneren batean gertatu zen”. Orduan gertatuko zen Maju, Mariren gizona, Marirengandik bereiztea, beharbada aitzur-nekazaritzatik golde-nekazaritzara igarotzean (lehenbizi Mesopotamia aldean, duela 5500 inguruan.

Azkenez, zenbait ondorio filosofiko:

- Marik natura oro har eta naturaren **drama** irudikatzen du;aldiz, mito indoeuroparrean **idolo** maskulinoa da eredu, gurtza, sakrifizioak eta gerla eskatzen dituen (heroi gerlaria, gerra-aizkora...ageri dira erruz) artean nahiz aztarnategi arkeologikoetan. Eta jainkoak, Odín gerrarena, Thor ekaitzarena, Mitra apaiza eta Varuna gerlaria, Zeus tximista eta justiziarena...)
- Marik natura bere horretan den bezala irudikatzen duenez, ona zein txarra asumitzen ditu. Ez dago Ona/ Txarra manikeismorik.
- Horrez gain, kontrarioak barne-hartzen ditu, dogmatismoak egiten ez duena, Anuntzi Arana antropologoak azaltzen duenez (*Orozko haraneko kondaira mitikoak* (EHU)
- Bestalde, euskal mitologian ez da agertzen naturaz gaindiko izaki edo eremurik. Mari bera ez da naturaz gaindikoa; giza gatazkek sortua izan daiteke, baina ez naturaz gaindikoa. Gure jatorrizko mitoan naturaz bestelako izakiak (preternaturalak) ageri dira -lamiak eta abar-, baina ez naturaz gaindikoa (sobrenaturalak). Horregatik ez diogu deitzen Jainkosa, Andere baizik. Erliio kristauak eta islamak, ordea, naturaz gaindiko izaki eta eremua dute oinarri eta ardatz.

### **e) Ama Birjinaren kasua**

---

Hemengo antropologo batzuek “Birjinaren kasua” aipatzen dute, sinbolo femeninoak erabili arren gizarte patriarkala gertatzen dela argudiatzeko. Egiaz, Ama Birjinaren debozioak garrantzi itzela hartu izan du, nahiz eta Miriamen pertsonaia ez duten nabarmentzen ez Ebanjelioek ezta hasierako Kristianismoak. Zergatik promozio unibertsal hori? Nire ustez argi dago: leku bakoitzeko Ama Birjinak jainkosa autoktonoa ordeztu du: Horrela adibidez, Mexikoko *Ama Tonantzin* Guadalupeko Birjinak ordeztu zuen, Hego Amerikako *Pachamama*Lujango eta gainerako Ama Birjinek, Kanarietako jainkosa gorena, *Chariraxi*, hango Ama Birjinek (Candelaria etab.) Eta Andra Mariak Mari Anderearen tronua okupatu du gurean.

Beraz, ez dago inolako kontraesanik Birjinaren eta patriarkatuaren artean, zeren Birjina erregimen patriarkalak berak ezarri baitu.

### **f) Zelan deitu gizarte, zibilizazio edo kultura ez-patriarkalari?**

---

Ez nioke **matriarkatua** edo **matriarkalismoa** deituko, zeren, *patriarkatua* antonimoak bezala, hitz horiek barne duten*arjéu*hitz grekoak inposatzea edo menpean hartzea adierazten baitu. Baina ez da ageri historian zehar ez historiaurrean gizarte matriarkalik; kasu isolatu batzuk salbu, zeren ba omen gaur egun ere zenbait gizarte matriarkal (Khasi, Jaintia eta Garo komunitateak Indiako ipar-ekialdean edota Mosuo kultura Tibet eta Txina artean)edo behintzat parekideak (Wodaabe tribua Nigerian,Akan taldea Ghanan, Minangkabau gizartea Sumatran...). Patriarkatu menperatzailea da, aitzitik, munduan zabaldu den egoera ezaguna eta sobera dokumentatua.

Ez diot deitzen **matrilineala** ere, ama-ildoko oinordetza edo ondorengotza adierazten duelako bakarrik, hau da, lehentasuna amaren senitartekoek izatea, emakumezko zein gizonezko izan. Matrilineal eta patrilineal hitzak barruti sozio-juridikora mugatzen direla dirudi, eta hori baino askoz eremu zabalagoa hartzen du Anderearen zibilizazioak.

Azkenaldian **matrizentrismoa**, **matrismoa**...deitzen zaio. Halere, bada arazo bat, hots, matri-erroak emakumea irudikatzeko bi tradizio handietatik bata bazterrera uzten duela: aurre-historiako Jainkosa Damarena eta euskal mitologiako Mari Anderearena, hain zuzen ere. Gure mitologiako pertsonaia nagusia Dama edo Anderea baita, batzuetan onbera eta beste batzuetan bihurria, nahiko androginoa, baina inondik ere ez ama klasikoa.

Horregatik deitu diot hemen Andere-arauzko zibilizazioa edo kultura horri **Anderearen zibilizazioa**.

Besta aukera bat gizarte **parekidea**, **simetrikoa** deitzea da, generoaz ari garela adituz gero.

Azkenez, bada izen bat, jada erabiltzen dena eta oso egokia deritzodana: **gilanía**, **gizarte gilanikoa**, grekozko hitzez osatua: *guiné* (andra) eta *anér* (gizona), gehi "l" link gisa. Gauza bera litzateke "androginoa", baina hau sexuari soilik lotu ohi zaio, hermafrodita izaera adierazteko.

#### **g) Zuzenbide Piriniarra versus Erromatar-Germanikoa. – Foruak**

---

Zuzenbide Piriniarra delakoa ahozko eta ohiturazko legeria zaharra da, herrialde bakoitzean bere kasa garatu zena, harik eta Nafarroako Erresuma idatzizko lege-bildumak egiten hasi arte XIII. m.tik aurrera. *Foru Orokorra* erresuma osoan aplikatzekoak ziren lurralde-eskubideei buruzko lege-multzoa zen. Antzinagoko zuzenbideari dagokionez, hurrengo zutabeak zituen, zeinetariko batzuek gaur arteko eragin sakona utzi duten gure sen kolektiboan:

- *Etxea* da zuzenbide piriniarraren oinarria. Etxeak bere osotasunean irautea. Eta hor amaren ildoko oinordetza ageri da. Eredu **matrilineala**, beraz. Baita **matrilokala** (senarra emaztearen etxera aldatzea). *Etxeak* bere izena ematen die bertakoei, baina hemen izena gizonek nahiz emakumeek hartzen eta transmititzen zuten; eta genero-simetria hori ezin zuen irentsi Elizak (ez gero Frantziako eta Espainiako estamentu zibilek), instituzio hori XVII. mendean geroztik gogor borrokatu zutelarik. Benetan asaldatzen zituena emakumeek transmisioan zuten boterea zen.
- Etxeak anderea izanik, emakumeak du protagonismoa. Etxearen kudeaketan eta ordezkartzan: elizako "sepulturaz" arduratzea, etab. Arlo honetan, "seroren" kasua daukagu, gero ikusiko dugunez.
- Bestalde, ikerlariek diotenez, emakumeak protagonismo handia izan zuen lehen nekazaritzan, goldearen aurretiko aitzur aroan. Baina horrez gain, lurra iraultzeko Laia eta Laiaketa ezagutu ditugu oraintsu arte, gizonezko eta andrazkoen taldeak auzolaneko lerro luzean laiaketan ari dien argazkiak baitaude. Eta gaurko nekazaritza alorreko proiektu aurrelarietan gero eta protagonismo handiagoa du emakumeak.
- *Auzoa*, *Auzotasuna*, *Auzolana*. **Auzoa** da bigarren zutabea, gure Zuzenbidean nahiz praktikan. "Urruneko senidea baino hobe auzokoa".

Auzotasuna bermatzeko ohitura ugari izan dugu: odoloste-trukea, etab. Sen horren barruan kokatzen ditut auzo mailako hainbat ekitaldi, ospakizun, etab., oraindik bizi-bizirik dirautenak.

**Auzolana.** Azkenotan Eusko Jaurlaritzak bere propagandarako bahitu eta desitxuratu duen arren, benetako auzolanak ondo funtzionatzen du oraindik Euskal Herrian, lehengokoez bestelako eremuetan eta moduetan, jakina. Etxea kasik desagertu ondoren, auzoak eta auzolanak sekulako potentzialtasuna dute gurean. Horiek biziberritzean datza gakoa.

- **Batzarra.** Erabakiak hartzeko funtzionamendu horizontal horixe da euskal senaren ezaugarri garrantzitsuenetariko bat. Erabakiak zelaiko batzarretan hartzen ziren eta Juntetara aurkeztu. Egungo partidokrazia eta delegazio-sistemaren alternatiba demokratikoa.
- **Lur eta baso komunalak.** Zuzenbide piriniarraren beste zutabe bat. Nafarroa konkistatua izan ondoren, luraren pribatizazio etengabea gertatu den arren, oraindik geratzen dira euskal sen komunalistaren arrasto batzuk: baso komunalak, etab.

*Ez dago azaldu beharrik Zuzenbide Erromatar-Germanikoak gurearen kontrako legeak, ohiturak eta ideosinkrazia inposatu digula: kolektiboan barik pribatuan oinarrituz, komunitatean barik norbanakoan, etxekoandean barik paterfamilias delakoan, etab. Horrek guztiak gizarte-klaseei, kapitalismoari, indibidualismoari eta patriarkatua indartzeari eman dio bide, jatorrizko euskal sena aldatuz joatea eraginez.*

*Beraz, gaur indarrean dagoen Zuzenbideak Zuzenbide Erromatarrean du sustraia, zeinek norbanako pribilegiatua du ardatz (CIVIS). Ez dut uste figura horrek itzulpen zehatzik duen euskaraz, zeren hiritar (hiriko) ez delako gauza bera, eta are gutxiago herritar.. Beste horrenbeste gertatzen da paterfamilias, patria (aberria ez da gauza bera, ez dagoelako aitarekiko erreferentziarik) eta beste hainbat hitzarekin. Bi sistema ideologiko oso desberdin dira, eta euskerak euskal ideologia edo sena transmititzen digu.*

## **h) Foruak**

---

Esan bezala, herri edo herrialde bateko usadio eta ohiturak idatzita jasotzen zituen araudi-multzoa ziren Foruak. Zenbait eskubide eta askatasun indibidual zein kolektibo eraentzen zituzten: zuzenbidezko eskubideen errespetua, bake-garaian soldadutzarik egin beharrik eza, zerga-erregimen berezia, aduanako zergarik eza, etab. Herrialde bakoitzeko batzarrak zuen foru-legeak idazteko eta aldatzeko ahalmena.

Lehenengo forua **Nafarroako Foru Orokorra** izan zen (XIII mendea). Hona hemen Anne-Marie Legarderen (“Les Basques, société traditionnelle et symétrie des sexes”) analisia emakumearen egoerari dagokionean: “Oso informazio zehatzak ematen ditu emakumearen eginkizunei eta egoerari buruz: haren ahalmen juridikoa, ezkontza kontratua, ezkontza-hornia, ezkontza-erregimena, emakumearen egoera matrimonioan, ezkontzideen arteko eginkizunak, ondasunen kudeaketa, ezkontza desegin osteko emakumearen egoera, bigarren ezkontzak, alargunen usufuktua, etab.”

“Ez al da hori guztia euskaldunen izaera psikikoaren eta sexu-simetriaren hurbilketarako materiala?” -ondorioztatzen du berak.

Euskal Herriko Foruak ezpata- eta konstituzio-kolpeaz eraitsi zituzten. Iparraldekoak 1789an indargabetu zituen “Iraultzak” konstituzio berria ezartzean. Ez da geratu arrastorik ere. Hego Euskal Herrian, Borboien eraso askoren ondoren, Cádizko Gorteetako konstituzioak abolitu zituen lehenengo aldiz (1820an). Fernando VII.ak berritu bazituen ere, Bigarren Karlistada amaitzean lege-dekretuz abolitu zituzten hiru herrialdeetakoak, Kontzertu Ekonomikoak bakarrik geratuz hondar gisa. Hauek ere kendu zizkien Francok Bizkaia eta Gipuzkoari. Diktadorea hil ostean, hiru probintzietako Diputazioek Foru Diputazio edo Aldundi izena

berreskuratu zuten, eta 1981ean beren Kontzertu Ekonomikoa Bizkaiak eta Gipuzkoak. Nafarroan 1982an “Foru-erregimenaren Hobekuntzarako Lege Organikoaren” arabera Foru Komunitatea eraikitzean, Foru Diputazio historikoa herrialdeko Foru-Gobernu bilakatu zen. Eskuduntza minimo horiek ere mehatxupean daude gaur egungo eskuinaren oldarraldiarekin.

Genero parekidetasunari dagokionean, *AlkarPoderoso* deritzon foru-zuzenbidezko eskubideak merezi du aipatzea. Erdi Arotik datorren eta Bizkaian indarrean dirauen tradizio honen arabera, ezkontideek beren oinordetzari buruzko testamentu-ahalordea ematen diote elkarri. Horrela bizirik geratzen ezkontideak, *gizonezkoa nahiz emakumezkoa* izan, har dezake ondasunen gozamen unibertetsala edo integrala.

## **i) Euskera**

---

Euskal pentsamendua edo sena edukia transmititzen digun tresna nagusi eta ezinbestekoa da. Bera barik euskal senaren eraikina hondoratu egingo litzateke. Ikuspegi askotatik azter daiteke bera.

Filosofia aldetik, espazio-denboraren pertzepzioa *une/gunehitzek* adierazten dute zientifikoki: gauza bera dira, baina ez guztiz: denbora espazioan gauzatzen da. Bestalde, *ur/urte, egu/negu* eta horrelakoek batasun kosmikoa bere ñabardurekin adierazten dute, adibide batzuk jartzearren.

Goian landu dugun arloari atxikiz, euskeraren egiturak, inguruko hizkuntzenak ez bezala, *parekidetasun desberdindua* esleitzen die andre nahiz gizonari: hika tratamenduan, senidetasuna izendatzean, etab. Hika tratamenduari dagokionez (aizak/aizan), zuzentzen gatzazkion pertsonaren generoa adierazten digu, bata edo bestea diskriminatu gabe. A.M. Lagardek oso azterketa sakona egiten du gai honi buruz: gizarte gilanikoa islatu eta gauzatzeko tresna komunikatiboa den hitanoa galtzeak gure sen kolektiboari egiten dio kalte zuzenez.

Senideak izendatzeko orduan, ama hartzen da erreferentziatzat -BA atzizkiaren bidez (osaba, izeba, neba, arreba, etab.), M.Carmen Basterretxeak azaltzen duenez (“Euskal Herria, kultura matrilineala”).

Ilargi-egutegiari dagokionean, berriz, ilargi faseak (astelehen-astearte-asteazken, egun bereziak (ilena, egubakoitz, irakoitz) eta ilargibeteko laurrena(*larunbata*): eguazten-eguenbariku-igande) izendatzeko hitzak ditugu; eguzki-egutegia eta 7 eguneko astea (*semana*) inposatu zenean, ordea, 15 eguneko ilargi-zikloa (*astea*) izendatzen zuten hitzak lekuz kanpo eta esangurarik gabe geratu dira, eta batzuk desagertu (“Antzinako euskaldunen ilargi egutegia”. J.Nabera).

Baten batzuk diote euskera galdu den lurraldeetan ere kontserbatzen direla kultur edukiak. Zenbateraino, ordea? Eta noiz arteino? Ziur euskerarik gabe zeharo pobretuko litzakeela gure kultura. Eguzkia ere ez litzateke jada Amandre izango.

## **j) Herri kultura eta folklorea**

---

Bata zein bestea oso aberatsak ditugunez, aparteko kapitulu bat beharko lukete. Bertsolaritza eta kantua, Maskaradak eta Inauteriak, solstizioko errituak, Dantzak... Azken atal honi buruz, nabarmentzekoa da J.A. Urbeltz jaunaren lan eskerga: Bere lehen liburua (1994):

“BailarelCaos. La danza de la Osa y elsoldadocojo: Sobreaspectossimbólicos de lasdanzasvascas”

## **k) Naturaren ezagutza eta Lurrarekiko atxikimendua**

---

Nafarroa konkistatu ondoren, milaka lagun, gehien-gehienak emakumeak, erre zituen Inkisizioak 1540 eta 1700 bitartean. Sendagileak, emaginak, sendabelarretan, botanikan eta alkimian adituak. Naturaren ezagutza sakona zuen jendea, *sorgina* hitza deabrututa geratu zelarik.

Naturaren zikloak eta Lur bizi-emailea halako intentsitatez ospatzen.zuen andere-arauzko zibilizazio hura berreskuratzea besterik ez daukagu, katastrofea ekidin nahi badugu. Horixe da gaur egun gizateriaren erronka, zeren kapitalismoaren eta patriarkatuaren botere suntsitzaileak sortu baitu arazoa, eta badakigu arazoa sortzen duenak nekez konpontzen duela hura. Halere, badirudi gaur egungo jendarteak kontzientziazten ari dela klima-aldaketaz, ingurumena pozoitzeaz, gerren injustiziaz, migrazio masiboen miseriaz.

Asko hitz agin dugu Jainkosez, Andereaz eta abar, Baina horiek ez dira besterik Naturaren indar kosmikoen irudikapenak baino. Sinbologia horrek guztiak naturari eta bizi-zikloi arreta berezia ematen zien zibilizazioa azaldu digu. Ez al horixe, hain zuzen, bizitzen jarraitzeko behar duguna?.

Naturarekiko begirune eta enpatia hura berreskuratu beharra dago, emakumearen ahalduntzearekin eta intsumisioarekin batera..

Jarrera orokor horrekin batera, ezinbestekoa dugu lurraldearen, komunitatearen eta auzoaren kontzeptuak biziberritzea, horiexek baitugu gertatzen ari denarekiko defentsa eta intsumisiorako esparru naturalak.

Naturaz esandakoarekin batera, emakumearen ahalduntzea dugu ezinbesteko, gizateriaren erdia ezin daitekeelako izan jopu, eta, gainera, aldaketarako indar erakarle izan daitekeelako.

## **l) Intsumisioa**

---

Ez digute irakatsi, baina intsumisioaren memoria sakonak bezain etengabeak elikatzen du euskal sena. Erresistentziak eta errepresioak markatutako herria gara.

Batetik *bagaudak* daude, II. mendetik V. mendera jauntxo handien eta Erromatar inperioaren aurka altxatu ziren nekazari-talde txirotuak. Bagaudeen matxinada nagusia V. mendean lehen partean izan zen, Euskal Herriko lurraldeetan ere, harik eta Nafarroan garaitu zituzten arte. Bi mende eta erdi iraun zuen matxinada!

Bestetik, XVI. mendean, *Durangoko heretikoak*, fraticelloen doktrina komunistak aldarrikatzen zituztenak, eta “jaio eta hiltzea besterik ez dago” esaten zutenak.

Bitartean, historia ofizialak jaso ez dituen hainbat desobediencia eta intsumisio izango ziren. Jaso dituen artean, Gatzaren altxamendua (1631-34) Bizkaian eta Gamazada (1893-94) Nafarroan. Gure garaian, Espainiaren zerbitzurako soldadutza amaitzea lortu zuen intsumisioa, eta geroztik, etengabeko borrokak ezagutu ditugu arlo guztietan: frankismoaren kontra, euskal presoen alde, murrizketen kontra, esklabo-lanaren kontra, pentsio duinak eskatuz, Emakumeen Martxa eta abar.



### **m) Erlijio eta Eliza katolikoa: euskal nortasunean izan duten eragina**

---

Arlo honetan ere aldaketa gertatu da duela 50 urte ingurutik honantz: *erlijio* eta *eliza katolikotik askatze-prozesua* bizi izan dugu E.H.an, hamar mende luzetan zehar izan duen eragin sakonaren ostean.

- Erlijioari dagokionez, askoz eragin txikiagoa izan du, Elizak izan duenarekin konparatuta. Orokorki, ideologia transzendentalekiko jarrera eszeptikoa izan du euskal jendeak, aurrerakuntza teknikoen zale-zale izan den bitartean (San Martin eta Jentilen kontakizunak gogoratzea baino ez dago). Naturaz gairik kristau erlijioaz ere beste horrenbeste gertatu dela esango nuke: “zer edo zer izango da” erantzunez laburbildu ohi du fedea jende xeheak.
- Horrek ez du esan nahi erlijioaren aztarnarik geratu ez denik, batez ere inkontzientean: erruduntasun sentipena, manikeismoa eta beste zenbait aje.
- Elizari dagokionez, aldiz, nabarmena izan da euskaldunen bizitzan eta gizartean izan duen eragina. Adibide gisa, William Douglas kaliforniarra, Murelaga herrian egin zuen ikerketan (La muerteen Murelaga) argi ageri da zein garrantzi handia izan duten hileta elizkizunek auzotasuna eta senidetasuna bermatzeko.

Mezatarak joateak berak ere auzokoak elkarrekin biltzea izan du xede, fede-komunitatea osatzea baino.

Baina euskal emakumeek Eliza katolikoan izan duten eraginaz ere ohartu beharra dago. Izan ere, aipagarria da garai batean **serorek** eta beren laguntzaileek izan zuten eginkizun erlijiosoa, Roslyk M. Frank andereak sakonki ikertu eta dokumentatua. Serora (sorora, beata, benoite) auzoak aukeratzen zuten eta esku hartze handia zuen erritu-jardueretan, zeremonia gidari gisa (hiletetan, bertsoz ere ekiten zioten). Komunitateko diru-kontuak eramatea ere beren gain zegoen. Serorek eta beren laguntzaileek hainbeste botere edukitzea jasaezina zen Eliza patriarkalean eta Lancre eta konpainiak dekretu-kolpeaz gogor eraso bazituzten ere, seroren instituzioak XX. mendera arte iraun zuen. Barandiaranek dioskunez, “serorak kristau liturgiako emakumezko apaiz eta zeremonien buru ziren aldetik betetzen zuen eginkizuna, etxeko-andreak etxeko kultuaren arduradun gisa betetzen zuenaren luzapena besterik ez zen”. Agian kristianismo aurretiko tradizio bat.

### **n) Zein da egungo egoera?**

---

Aurreko mendeetan jada gertatua zen euskal nortasunaren galera, batez ere Nafarroa konkistatu ondoren. Gogoratu medikuntza tradizionalaren errepresio ankerra, lur komunalen pribatizazioa, euskal ohitura eta Foruen galera, denok ere euskal senaren zutabe garrantzitsuak.

Euskaldunok beste gerra bat galdu ondoren, Frankoren errejimenak eta ondorengo neofrankismoak are gehiago kolpatzen dute euskera nahiz euskal kultura eta askatasunak.

Ondorioz, hona hemen **euskal nortasun kolektiboaren zenbait galera** azken ehun urteotan:

- Zuzenbide Piriniarrari eta Foruei gaur egun indarrean dagoen Zuzenbide Erromatar-Germanikoa gailendu zaio erabat, lehengo *komunitate sena* eta lokarriak ahulduz, maila lokal nahiz nazionalen.
- Horren ondorioz, eta baserria amiltzearekin batera, *Etxearen komunitate kontzeptua eta honen inguruko ama-ildoko ordenamendu* juridikoa desagertu egin da ia.

- *Euskal Mitoaren transmisioa eten egin da.* Mito hori transmititzen zen guneak (baserriko supazterra...) eta uneak (bertan egiten ziren lanak, arto eta indaba garautzea, txarri-hiltze ingurukoak, zenbaitetan auzokoak bilduz, eta beste hainbeste ospakizun) desagertu ahala, transmisio hura eten egin da. Supazterraren lekua telebistak hartu du.
- Komunitate senaren eta helburuen ordeztasun, *norbanakoak hartu du protagonismoa*, norbanakoaren arrakastari lehentasuna emanez. Hortik alde negatiboen artean, individualismoa, kontsumismo eta kapitalismoaren inperioa, zeinek Multinazionalen eta Bankuen menpeko jopu bihurtu gaituen.
- *Naturaren eta sendabideen ezagutza eta jakinduria tradizionala galduz* joan da, eta farma-industria gailenduz, gaur egun 3. potentzia ekonomiko bihurtu delarik (arma eta petrolio negozioen hurrengoak). Orain medikuntza integratibo oro ezabatu nahian dabilta. Horrez gain, osasungintzaren pribatizazioa hedatuz doa.
- Lur planeta, *ingurumena eta jendearen osasunari buruzko jarrera kezkatu bat* sortu da arrisku berrien aurrean: arrisku nuklearra, klima aldaketaren ondorioak, elikaduraren industrializazioa, kutsadura eta toxikatze prozesu globala.

#### **o) Aurrera begira zer?**

---

Egungo egoeraren balantzea osatzeko, herri mailan **bizirik dirauten arloak** ere aipatu behar dira:

- Era guztietako jarduera kolektiboak eta herri mugimenduak, *komunitate sena bizirik* dagoen seinale.
- Auzoa, *auzolana eta batzarra*, lehengoaz bestelako testuinguruan, jakina.
- Era guztietako errebindikazio eta borroka, *intsumisio sena* bizirik dagoen seinale.
- *Emakumearen ahalduztze-mugimendu* hazkorra, indarrean dagoen patriarkatuaren eta matxismoaren aurrez aurre; baita Pentsionisten mugimendua pentsio duinen alde.
- Azken 100 urteotan *nazio kontzientzia* eta erabakitze eskubidearen aldarria hedatu egin da populazio zati batetara.
- Era berean, *elkartasun internazionalista* sortu da, herri zapalduetako, migratzaileetako, etab.
- *Euskerak eta euskal kulturak bizirik diraute, nekez baina.*

Euskerari dagokionez, jende askok ikasi du euskara eta ulertu egiten du, baina erabilera dezente makaldu da azken mende honetan. Gure eginkizunen artean, euskararen erabilpena sustatzeaz gain, "hika" tratamendua berreskuratu eta bultzatzea legoke, goian azaldutako inplikazioengatik

Euskal kulturari dagokionez, euskaltasuna orobat noraezean aurkitzen dela esan berri du J.A. Urbeltzek. Arrazoi duela uste dut. Izan ere, arte mailan adibidez, identitatea baino espektakulua lehenetsi da. Oteiza vs. Guggenheim.

Bada sasoi onean dagoen arlorik ere, adibidez bertsolaritza. Eta oso garrantzitsua, euskararen aldeko herri ekimena.

Hortxe da euskal identitatearen aurkako eraso ere (Iruña/Veleia lurperatzea, "euskara berantiarraren" kanpaina mediatikoa..)

Kontua da kultura indoeuropar ahalguztidunak setiatuta daukala euskal kultura gutxitua, baina bada erresistentzia ere.

Hizkuntz eta kultur aniztasuna, berez aberasgarria da. Gure kasuan ez da hori arazoa. Gazteleraren eta frantsesaren erabateko nagusitasuna da arazoa, agerikoa baita horien aldeko diglosia.

Beraz, azken ehun urteotan euskal gizarteak, kultura eta pentsaera *funtsean* aldatu dira. *Konklusio gisa, euskal gizarteak, oro har, kristau aurreko eta indoeuropar aurreko zibilizazioa baztertu egin du, dela errepresioak horretara behartu duelako, dela "kontu zaharrak" direlakoan bizkar eman diolako edota Memoria galdu duelako, euskal sena mantentzeko ezinbestekoa den memoria.*

*Halere, jatorrizko kulturaren txingarrak geratzen dira, ikusi dugunez. Txingarron gainean erregai egokia ezarri eta su ederra isiotzean dago gakoa.*